




BIDARRAI Harriondo



Distantzia
7,8 km

Desnibela
504 m

Iraupena
4h00

Tipologia
Itzulia

Zedarriak
**1. Zatia:GR, eta gero PR - 2. Zatia: PR
3. Zatia: PR - 4. Zatia: PR, eta gero GR
5. Zatia: GR**

Ibilaldiaren abiapuntua Bidarraiko herriko plazan dago, trinketearen eta Iparlan jatetxearen parean. Autoa utz ezazu, herriko sarreran seinatuta den ibiltariei zuzenduriko aparkalekuan. Ondotik, zoaz oinez Bidarraiko plazatik abiatzen den ibilaldira buruz, bide-zedarritzatua segituz.

GPS datuak: **UTM : 633846 - 4791581 Lat/Long : 43.265195/-1.350793**

Iparlako mendilerroaren zolan, ibilbide honek Harriondo mendigunera igotzen den ibiltariari paisaia ederrak eskaintzen dizkio: alde batetik, Baztango ibarra, Itsusiko Harriekin; bestetik, Aldudeko Errobi ibarreko sartzeta. Ibilaldiaren punturik gorenean, ibiltariak seguraski manex artaldeak (tokiko ardi arraza) ikusiko ditu. Gainera, borda hondatuen artetik pasatuko da, menderen mende iraun duen artzaintzaren lekuko. Bidarraiko herrira itzultzean, oihan bat zeharkatuko du, eta Frantziako Estatuan arras gutitan ikus daitezkeen ametz mota eder batzuk ikusiko ditu.



1. ZATIA > Herritik lehen mendixketara

UTM : 633846 - 4791581

Herriko plazako aparkalekutik, Menditarrena landetxearen eskuineko errepidea hartu, GR10 bidean. 100 m urrunago, hartu pixka bat ezkerrean igotzen den errepidea. Pasatu eskuinaldean dagoen landetxe bat, eta, errepidearen bukaeran, kanadar pasabide baten ondotik, lur gorriko bide zabal batean ibili. Igoera laburraren goiko aldean, utzi zuzen doan bidea eta joan ezkerrean patar zutean igotzen den bidexka harritsu zabal batetik. Bidea hertsiago bilakatzen da gero, eta ote-larre batetik jarraitzen du; azkenik, bidegurutze baten heinera iristen da.

2. ZATIA > Laxobordako leporantz

UTM : 633191 - 4791213

Joan eskuinera, hildako zuhaitz baterantz. Bidexkak mendi mazelatik jarraitzen du, harantto basati batean. Leku harritsu bat zeharkatu eta haranttoaren barne-barnera iritsi. Orduan, erreka zeharkatu. Zenbait leku harritsu zeharkatzen dituen bidexkatik jarraitu. Iratzez beteriko gailur borobildu batera iritsi. Orduan, bidexka bitan banatzen da. Joan eskuinera, bidexka aski lautik. Hortik segitu, pentze belartsu baten ingurura iritsi arte. Han, haritz ederrak eta borda bat daude. Laxobordako leporantz zaude.

3. ZATIA



3. ZATIA > Azken igoera

UTM : 631633 - 4790358

Ezkerretik igo, ote-sasien bazterretik. Gero, bidexka berriz laua bilakatzen da eta pentzearen gainaldetik pasatzen da. Bide mundrunatu baten bukaerara iritsi, eta ezkerrean hartu igotzen hasteko. Bidexka zabal horretan ibili, 400 m baino gehixeago, soropilezko ordoki batera iritsi arte. Honen erdian hondakin multzo bat dago. Biratu ezkerrean, hondakineta-rantz joateko. Hondakinaren eskuinetik pasatu, mendi mazelatik doan eta agerikoa den bidexka batera iristeko. Erne egon eta seinaleei jarraitu.

4. ZATIA > Artzain bidexka zahar batean

UTM : 631887 - 4790017

Ibilbideak bidexka harritzatu arras eder batetik jarraitzen du, lehenago pasatako haranttoaren gainetik. Buruzuneko lepora iritsi, eta GR10 bidera iritsi. Joan ezkerrean, Bidarrairantz. Segitu gailur borobilduan ezkerretik. Hondakin bat pasatu. Gero, beste mendi mazelara joan, harri mokorren arteko pasabide batetik. Bidetik jarraitu, Pagalepora iritsi arte. Orduan, zuzen jarraitu, oihanpean sartzen den eta agerikoa den bidexkatik. Haritz oihana zeharkatu, zuhaitz gutiagoko eremu bat ere, eta berriz ere oihanpe batean sartu. Jaitsiera bukatu, eta baserri baten gainaldean den pentze bat aurkitu.

5. ZATIA > Bidarraira itzultzea

UTM : 633431 - 4790909

Pentzearen eta baserriko eraikinen artetik joan (animaliei eta baserritarrari ahal bezain traba gutien eginez). Eskuinerako bihurtzea segi maldan behera, joan ezkerrean, Bidarraiko aparkalekura itzultzeko.

INTERESGUNEAK

❖ Bidarraiko herria

Nafarroa Behereko herri txiki bat da, eta 150 m-ko altueran dago. Aldudeko Errobi ibarrera sartzeko atea da. Oso leku prezatua da, GR10 bidea hortik iragaten baita eta Iparlako mendilerro famatua igotzeko abiapuntua baita. UTM : 633846 - 4791581

❖ Sai arrea

Laxobordako lepotik, ibiltariak, segurren, parean dauden ezpondetan, hau da, Itsusiko Harrietan, sai arre anitz ikusten ahaliko ditu. Bana besteko 2,60 m-ko hedadurako harrapakin eta hiliki jalea da. Kabala hazleekin harremanetan bizi da, hildako animaliekin elikatzen baita. UTM : 631633 - 4790358

❖ Olha

Olha mendian dagoen harritzko borda bat da. Bortuko sasoiak, artzaina eta artaldea hartzen ditu. Espazio lauan eta pentze baten ondoan eraikia da, hots, bazkaleketan. Ibilbidean ikus daitezkeen hondakinak artzaintza ohituren bilakaeraren lekuko dira, eremu horiek uzteko joera baitago. UTM : 631897 - 4790056

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Komuna publikoak, Herriko Etxean
UTM : 633888 - 4791617

3. ZATIA



Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoa. Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia. Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilitzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurgiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurgiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzaien gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetaren ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Lokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiotzu (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informatu zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota ondorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren gunetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 -
SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeo aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu ematen arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:

Turismoko Harrera bulegoak

- BAIGORRI

Herriko Etxeko plaza

+33(0)5 59 37 47 28

- DONAPALEU

Charles de Gaulle plaza

+33(0)5 59 65 71 78

- DONIBANE GARAZI

Charles de Gaulle plaza

+33(0)5 59 37 03 57

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuak gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

ZEDARRITZATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorrie jarraitu beharko zaizkie. ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↵	↵	↵	◀
Itzul eskuin	↶	↶	↶	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗